

## ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEEN (AZP) SEGURTASUN

### FITXAREN TAULA

NOLA JARDUN LARRIALDI BAT IZANEZ GERO	<b>ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK (AZP)</b>
GORABEHERA / ISTRIPUA GERTATZEAN KONTROLAGARRIA BADA  KONTROLAEZINA BADA ALARMA OROKORRA	<ul style="list-style-type: none"><li>• Kontrol Zentroa jakinaren gainean jarriko dute, larrialdia euren kokalekutik hurbil dagoen eremuan gertatuz gero.</li><li>• Ebakuazioari ekingo diote, ebakuazioaren eta alarmaren arduradunen jarraibideak betez.</li> <li>• Eraikina hustuko dute ALARMA ETA EBAKUAZIO PLANAREN arabera, eta ELKARGUNERA joango dira.</li> <li>• Berehala irtengo dira euren lan tokitik, eta irteerara joko dute, ebakuazio bideek adierazitako norabidean.</li> <li>• Pertsona ezinduei, istripua izan dutenei edo gaizki daudenei lagunduko diete lehenengo.</li> <li>• Lasaitasunez jokatuko dute, eta ez dute korri egingo.</li> <li>• Ez dituzte igogailuak erabiliko.</li> <li>• Inor ez bultzatzen eta jende pilaketarik ez sortzen saiatuko dira.</li> <li>• Ez dira atzera itzuliko.</li> <li>• ELKARGUNERA joango dira.</li></ul>
LARRIALDIA AMAITZEAN	<ul style="list-style-type: none"><li>• Ebakuazioaren eta alarmaren arduradunek emandako jarraibideak beteko dituzte.</li></ul>